

1906

EUSKAL-ITZ JOSTALDIEN BATZARREA

(Euskal festen XXV-garren urtea)

DONOSTIA-KO EUSKAL FESTAK



Euskal-itz jostaldien egintza

Donostia-ko Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur kontu ematera bear dan errespetoarekin, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa dan aurten, izkribatzaille eta musikalarien indarneur-tzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz esamiñatu ondoren aurkstu diran moldaera gu-guziak, irabazi dituzte sariyak, izkribatzaileen artean: On Karmelo Echegaray, On Juan Ignazio Uranga eta on Ramon Inzagaray jaun-nak, «Indalezio Bizkarrondo (Bilinch),» «Ama eta Fueruak» eta Arrantzalia» izendatzen diranakgatik.

Irabazi dituzte aldearak: On Juan Jose Belaustegui, On Jose Eli-zondo, On Victoriano Iraola eta On Jose Artola jaunak, «Bilinch-en lanaren iritziya», «Aberri maitia» «Itsas gizonak» eta «Arrantzalien bizitza» izentzat dituztenakgatik.

Irabazi dituzte aipamen onragarriak: On Jose Ignacio Garmendia eta Ona Rosario Artolak «Nekazaitzako sindikualdeak» eta «Naigabea eta atzegiña» **izendatuakgatik.**

Musikalarien artian irabazi dituzte sariak: On Jose Maria Usandizaga ta Soraluze, On Anastasio Huici, On Santos Inchausti, eta On Valentin Larrea jaunak, «Irurak bat» «Jose-Mari» «Nora zoaz artzaiña» eta «Euskeria» **azalkaitzat dituzten euskal kanta mol-
daerak-gatik.**

Donostian 1906-go Uztailen 11-an.

Batzarrea-ren izenean.

Dianagusia,

ALFREDO LAFFITTE.

Goarpelaria,

TORIBIO ALZAGA.

